

## Barbate.

Barbatek istorio bat baino gehiago du: piratak, Trafalgarko gudua, traina hondoratuak eta sareak bete atun.

Baina historia iragana da, eta Barbatek oraina ere badu.

Oraina, eta honen ur azpiko lekuko, gorgoniak bezala kolore distiratsudun milaka izaki bizi.

Eta beste batzuk, diskretuagoak, trikua, esaterako.

Harkaitzen gainazala algek eta ornogabeek osatutako tripa-festa da.

Epifitoz beteriko mahai honetara arrainak etortzen dira jatera.

Izaki harrigarrietako bat Astropartus ofiura da, ekinodermatua, itsas trikuak eta izarrak bezala. Zilarrezko fibula dirudi.

Hermodice carunculata edo su-arrak zinta apaingarria dirudi, erremingarri bezain koloretsua.

Itsas sugeak hortzak erakusten ditu, baina ia egun osoa bere kobazuloaren barruan igarotzen du.

Urak sardaka edota banan bana zeharkatzen dituzten arrainei nolabaiteko lasaitasuna ematen die horrek.

Norbere burua defendatzeko estrategiak ezberdinak dira. Badira euren kolore anitzeko larruaren bidez etsaiari aurre egiten diotenak, bakarka eta ozarki Posidonia bedaxken artean. Beste hainbat espeziek euren kolore uniformeari eta taldearen babesari esker bizirauten dute.

Atunen kostaldeko hondo hareatsuetan, aingura honek bere ezproiak azken aldiz sartu zituen. Bertan harrapaturik, atun baten hezurdura. Kontrako norantzan igaro dute denbora: Ainguraren burdina materia organikoaz estali bitartean, behin atun izan zen materia bizia mineral bihurtu zen.

Azalean, marinelek dihardute. Soken muturretatik tira egiten duten, euren bizitzatik tira egingo balute bezala.

Atunen kolpeek astindutako uretan dago iragana eta oraina.

Iragana hondartzan usteltzen diren ontzi hondarren artean datza. Garai oparoak bizi izan zituen herri baten hondartzan, atun handi eta boteretsuek Barbateko urak hartzen zituztenean.

Gainazalean, itsas hondoak gordetzen duenaren susmabidea besterik ez dago.

Epifitoez estalitako egurren artean, muxarrak ugari dira. Baita *plectorhynchus mediterraneus* edo Bartoloak ere. Guztiek aurkitzen dute babesaren egur eta burdin artean. Bi material horiek substratu bentoniko bihurtu dira, harearen gainean kokatu ezin diren espezie txertatzaileen onerako.

Takarta edo Palantxak, larru marradun bakailao honek aurkitzen du zer jan harea artean. Bere bizarrek ukimen gaitasuna dute, eta ornogabe txikiak aurkitzeko tresna bikaina dira. Arrainen ugaritasuna, Atlantiko itsasoko inguru honetako elikagai aberastasunaren adierazle da.

Baina arrainak ez dira adierazle bakarra. *Dendrophyllia* motako koralek hodi mineralak eraikitzen dituzte, zuhaitz-itxurako egitura ederrak, laranja edo hori biziz koloreztatuak.

Euren polipo erremingarriek, zetazko parpaila bezain zuriak, elikagaiak ekartzen dituen ura mugitzeaz gain, harraparien kontrako defentsa dira.

Finak eta sendoak; eraginkor eta hauskorak - koral horiek atunen kostaldea apaintzen dute.